



NAFARROAKO  
**Aldizkari Ofiziala**

2020. urtea

61. zenbakia

# Astelehena, martxoaren 23a

A U R K I B I D E A

	<u>ORRIALDEA</u>	<u>ORRIALDEA</u>	
<b>1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA</b>			
<b>1.7. BESTELAKOAK</b>			
- 108/2020 EBAZPENA, martxoaren 16koa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea hauteskunde sindikalen aldi baterako etenaldi bereziari buruzko erabakia, Nafarroako Foru Komunitateko Hauteskunde Sindikaletako Jarraipen eta Kontrol Batzordeko kideek sinatutakoa.	3878		
<b>2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA</b>			
<b>2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK</b>	3879		
- AGEZA	3879		
		- BUÑUEL	3879
		- BURLATA	3879
		- ELKANO	3886
		- ITZA	3886
		- LERATE	3886
		- BEIREKO ETA PITILLASKO LANGILEEN MANKOMUNITATEA	3886
		- SAKANAKO MANKOMUNITATEA	3886
		- ULTZANUETA ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA	3889
		<b>6. BESTELAKO IRAGARKIAK</b>	3890
		<b>6.1. JAKINARAZPEN EDIKTUAK</b>	3890

# 1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

## 1.7. BESTELAKOAK

**108/2020 EBAZPENA, martxoaren 16koa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea hauteskunde sindikalen aldi baterako etenaldi bereziari buruzko erabakia, Nafarroako Foru Komunitateko Hauteskunde Sindikaleko Jarraipen eta Kontrol Batzordeko kideek sinatutakoa.**

Koronabirusa arazo larria da osasun publikoarentzat, eta haren eragina gero eta handiagoa da bai enpresetan bai langileengan. Horregatik, beharrezkoa da neurri bereziak hartzea enpresetan eta administrazio publikoetan egitekoak diren hauteskunde sindikaletan.

2020ko martxoaren 16an, Nafarroako Foru Komunitateko Hauteskunde Sindikaleko Jarraipen eta Kontrol Batzordeko kideek erabaki bat sinatu zuten, helburu duena aldi baterako etenaldi berezia egitea foru komunitate honetako enpresetan eta administrazio publikoetan diharduten langileen ordezkarien organoetarako hauteskunde prozesuetan.

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 265/2019 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren Zuzendaritza Nagusiari dagozkio hauteskunde sindikalen erregistroaren gaineko eskudantziak.

Adierazitakoarekin bat, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 32. artikulua ematen dizkidan eskudantziak erabiliz,

### EBAZTEN DUT:

1. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea Nafarroako Foru Komunitateko Hauteskunde Sindikaleko Jarraipen eta Kontrol Batzordeko kideek sinatutako erabakia, helburu duena aldi baterako etenaldi berezia egitea foru komunitate honetako enpresetan eta administrazio publikoetan diharduten langileen ordezkarien organoetarako hauteskunde prozesuetan.

Iruñean, 2020ko martxoaren 16an.—Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusia, Izaskun Goñi Razquin.

### NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO HAUTESKUNDE SINDIKALETAKO JARRAIPEN ETA KONTROL BATZORDEKO SINDIKATUEN ERABAKIA, HAUTESKUNDE PROZESUAK ETETEKO COVID-19 BIRUSAK ERAGINDAKO LARRIALDI SANITARIOAK IRAUTEN DUEN BITARTEAN

2020ko martxoaren 16an bildu dira Hauteskunde Sindikaleko Batzordeko kideak; honako hauek:

–Javier Zubicoa, Lan Zerbitzuko zuzendaria, eta Garapen Ekonomikorako Departamentuaren ordezkari gisa.

–Honako hauek, Nafarroako Hauteskunde Sindikaleko Batzordea osatzen duten sindikatuetaordezkari gisa:

Amaia Villanueva, UGT ordezkatur.

Javier Ibáñez, CCOO ordezkatur.

Oskar Rodríguez, ELA ordezkatur.

Ainhoa de Miguel, LAB ordezkatur.

### ADIERAZTEN DUTE:

COVID-19 birusaren izurritea dela-eta sortu den larrialdi sanitarioa kalte handia eragiten ari da enpresetan eta Nafarroako langileengan, eta

horregatik da premiazkoa hauteskunde sindikalen esparruan ere neurri bereziak hartzea.

Nafarroako Foru Komunitateko Hauteskunde Sindikaleko Jarraipen eta Kontrol Batzordea sortzeari buruzko urriaren 3ko 182/1994 Foru Dekretuan (1994ko 124. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, urriaren 14an) ezarritakoaren arabera, batzorde horri dagozkio, besteak beste, Nafarroan egiten diren hauteskunde sindikalak kontrolatzea eta gainbegiratzea.

Horrenbestez,

### ERABAKITZEN DUTE:

Lehen.—Martxoaren 17tik (asteartea) aitzina, aldi baterako etetea hauteskunde sindikal guztiak.

Edonola ere, enpresa bateko hauteskundeetan parte hartzen ari diren hauteskunde-mahaiek eta sindikatuak aho batez erabaki dezakete etenaldia gaurtik aurrera (martxoak 16, asteartea) izatea.

Bigarrena.—Erabaki hau indarrean egonen da Nafarroan bizi dugun larrialdi sanitarioko egoerak irauten duen bitartean. Aldeetako edozeinek proposatzen ahalko du hauteskundeei berriro ekitea, baina horretarako alde sinatzaile guztiak egon beharko dute ados.

Hirugarrena.—Hauek dira etenaldiaren baldintzak:

–Sindikatuak erabaki dute ez dutela aurreabisurik erregistratuko.

–Gaur egun martxan diren hauteskunde prozesuak bertan behera geratzen dira. Etenaldia gertatu zenean zeuden egoera beretik abiaraziko dira berriro, agiri honen lehenengo puntuan adierazitakoarekin bat.

–Langileen Estatutuaren 67.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, langileen delegatuek eta enpresa batzordeetako kideek beren eskumenei eta bermeei eutsiko diete, eta beren zereginetan jardunen dute beste hauteskunde batzuk egin bitartean.

–Gaur egun martxan diren arbitraje prozesuak bertan behera geratzen dira.

–Etenaldi honek irauten duen bitartean, aurkaratzei buruzko komunikazioak erregistro elektronikoaren bidez egiten ahalko dira.

–Ordezkaritasunari dagokionez, Administrazioak argitaratutako azken datua (2020ko urtarrilekoa) hartuko da kontuan.

–Sindikatuak intzidentziarik ez erregistratzeko konpromisoa hartzen dute beren gain.

–Onartzen den intzidentzia bakarra hau izanen da: langileen legezko ordezkari batek edo batzuek beren kargua uztea legez ezarritako arrazoiren bat dela-eta. Kasu horretan, boto gehien jaso dituen hurrengo pertsonak ordezkaturko du, sindikatu berekoa izan edo beste batekoa. Orobat, Hauteskunde Sindikalen Bulego Publikoak mezu elektroniko bat bidaliko die Batzordeko kideei, oniritzia eman diezaioten intzidentziari; horretarako, gehienez, bi egun izanen dituzte. Ez badute ezer esaten, ordezkapenarekin ados daudela ulertuko da.

–Administrazioak komunikazio bat bidaliko die une honetan hauteskundeak martxan dituzten enpresei.

–Erabaki honetan jasota ez dauden egoerei erantzuteko, komunikazio bat bidaliko zaie mezu elektroniko bidez Hauteskunde Sindikaleko Batzordeko kideei, egoera aztertu eta egoki irizten diotena erabaki dezaten.

Hirugarrena.—Nafarroako Gobernuak Lan Zerbitzuko zuzendariak ebazpen bat emanen du, erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzeko.

UGT	CCOO
ELA	LAB

## 2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### 2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK

#### AGEZA

##### 2020ko aurrekontua. Behin betiko onespena

2020ko 3. Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarkia agertu zen, urtarri-laren 7an, Kontzejuren 2020ko aurrekontu orokorra jendaurrean egoteko epea abiarazteko, eta epe hori inork erreklamaziorik aurkeztu gabe iragan denez, behin betiko onetsirik gelditu da, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 272. artikuluan aurreikusitako iragarrikiz. Hona hemen laburpena:

#### DIRU-SARRERAK:

3. kapitulua.—Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak: 3.900,00.

4. kapitulua.—Transferentzia arruntak: 18.385,00.

5. kapitulua.—Ondareko diru-sarrerak eta herri-lurretako aprobetxamenduak: 24.622,00.

7. kapitulua.—Kapital transferentzia 29.140,46.

9. kapitulua.—Finantza-pasiboak: 30.000,00.

Diru-sarrerak, guztira: 106.092,46.

#### GASTUAK:

1. kapitulua.—Langileria-gastuak: 2.592,00.

2. kapitulua.—Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak: 36.972,46.

3. kapitulua.—Finantza-gastuak: 1.025,00.

4. kapitulua.—Transferentzia arruntak: 62.343,00.

6. kapitulua.—Inbertsio errealkak: 62.343,00.

9. kapitulua.—Finantza-pasiboak: 2.405,00.

Gastuak, guztira: 106.092,46.

Agezan, 2020ko otsailaren 16an.—Kontzejuko burua, Javier Marco Apestegüia.

L2003789

#### AGEZUA

##### Aldaketa, Ur horniduraren prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren eranskinean. Hasierako onespena

Agezako Kontzeju Irekiko Batzarrak, 2019ko azaroaren 6an egin bilkuran, hasiera batez onetsi zuen aldaketa Ur horniduraren prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren eranskinean.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatuari jarraikiz, espedientearen jendaurrean egonen da 30 egunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagunek eta interesdunek espedientearen azter dezaten eta erreklamazioak, kexak nahiz oharrak aurkez ditzaten.

Epe hori iraganik, erreklamaziorik aurkeztu ez bada, behin betiko onetsitatzeko joko dira.

Agezan, 2019ko abenduaren 16an.—Kontzejuko burua, Javier Marco Apestegüia.

L2003790

#### BUÑUEL

##### 2020ko aurrekontua. Hasierako onespena

Buñuelgo Udalak, 2020ko martxoaren 10ean egin osoko bilkura arruntean, hasiera batez onetsi zuen Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2020ko ekitaldiko aurrekontu orokor eta bakarra eta hura betearazteko oinarriak.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 271. artikuluan xedatuari jarraikiz, hasiera batean onetsitako aurrekontuaren espedientearen Idazkaritzan egonen da ikusgai hamabost egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagunek edo interesdunek espedientearen aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak, kexak edo oharrak aurkez ditzaten.

Epe hori iraganik inork bakarrik ere aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onetsiko da, eta aginduko da kapituluka laburturik argitara dadila Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Buñuelen, 2020ko martxoaren 11n.—Alkatea, María Teresa Espinosa Sáenz.

L2003795

#### BUÑUEL

##### 2020ko plantilla organikoa. Hasierako onespena

Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 19 eta 20. artikuluetan ezarritako iragarrikiz, Buñuelgo Udalak, 2020ko martxoaren 10ean egin osoko bilkura arruntean, hasiera batez onetsi zuen Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2020ko ekitaldiko plantilla organikoa.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 235. artikuluan xedatuari jarraikiz, espedientearen Idazkaritzan egonen da ikusgai hamabost egun baliodunean, bizilagunek edo interesdunek espedientearen azter dezaten eta egokiak iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten.

Inork alegaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onetsitatzeko joko da jendaurreko aldia iragan ondotik, eta aginduko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko.

Argitara ematen da, orok jakin dezan.

Buñuelen, 2020ko martxoaren 11n.—Alkatea, María Teresa Espinosa Sáenz.

L2003796

#### BURLATA

##### Aldaketa Etxeko laguntza-zerbitzua arautzen duen udal ordenantzaren behin betiko onespena

Burlatako Udalak, 2019ko abenduaren 26an egin osoko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen Burlatako Udalaren etxeko laguntza-zerbitzua arautzen duen udal ordenantzaren aldaketa (2015eko 30. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, otsailaren 13an).

Jendaurrean egoteko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iragan denez, aipatu ordenantzaren egin aldaketa behin betiko onetsi eta argitaratzeko agintzen da, behar diren ondorioak izan ditzan; hori guztia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluari jarraikiz (maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legeak aldatua).

Burlatan, 2020ko martxoaren 4an.—Alkatea, Ana Gongora Urzaiz.

##### BURLATAKO UDALAREN ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

1. artikulua. Etxeko laguntza-zerbitzuaren definizioa (ELZ).

ELZ (etxeko laguntza-zerbitzua) udal zerbitzu bat da, beren ohiko ingurunean oinarritako premiak betetzeko mugak dituzten herritarrei zuzendua, eta banakako zerbitzu batzuk ematen dituena, aldi baterako edo modu iraunkorrean, egoera bakoitzaren arabera. Xedea da pertsona bere ingurunean ahalik eta hobekiena integratzea, haren autonomia funtzionala handitzea eta haren bizi-kalitatea hobetzea.

2. artikulua. Etxeko laguntza-zerbitzuaren esku-hartzeak oinarritzat dituen printzipioak.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen printzipio orokorrekin bat, ELZren esku-hartzea printzipio hauetan oinarriturik dago:

—Erantzukizun publikoa: botere publikoek gizarte zerbitzuen esku-ragarritasuna bermatuko dute, eta administrazioak bere gain hartuko du finantza, teknika, giza eta antolaketa arloan behar diren baliabideak sustatzeko erantzukizuna.

—Unibertsaltasuna eta berdintasuna: botere publikoek bermatuko dute zerbitzua erabiltzeko aukera izan dezaten eguneroko jardueretan aritzeko mugak dituzten pertsona guztiek, baldin erabiltzeko baldintzak betetzen badira.

—Osagarritasuna: pertsonak etxean ahalik eta denbora gehiena atxikitzeko helburua duten beste zerbitzu eta baliabide batzuekin.

—Prebentziozko orientazioa: laguntza hartzen duen pertsonaren gaitasunen narriadura eragotzi edo murrizteko, bai eta sostengu eta harreman sozialen galera ere.

—Autonomiaren sustapena: eguneroko jardueretan parte hartzea eta familia ingurunean nahiz komunitateko bizitzaren alorretan moldatzea sustatuz. Nork bere erabakiak hartzea sustatuz, hala eraman nahi den bizimoduaren inguruan nola norberaren lehentasunak hautatzearen inguruan.

—Laguntza pertsonalizatua eta integrala: ELZk laguntza pertsonalizatua eskainiko du, pertsonen premia sozialak ezagutzeko aukera emanen duena, haien modu orokor eta osoan erantzun ahal izateko.

–Malgutasuna: kasu eta egoera bakoitzean laguntza hobea ematea ahalbidetuko duten baliabideak konbinatuz.

–Elkartasuna: botere publikoen jarduketek populazioaren kohesio soziala bultzatzen jo beharko dute, eta pertsonen arteko desberdintasunak errespetatzea eta onartzea sustatuko dute, bizikidetzaren harmoniaz bizi izan dadin.

–Normalizazioa: ELZren lehentasuna izanen da pertsonak atxikitzea beren ingurune sozial, familiar eta pertsonalean, eta bermatzea komunitateko bizitzaren parte hartzea, ahal delarik.

–Koordinazioa: baliabide instituzionalekin nahiz sostengu informaleko baliabideekin koordinazioa eginez, esku-hartzearen sinergia hobetzeko eta eraginkortasun maila handiagoa bermatzeko.

–Kalitatea: egiten den zerbitzua kalitatezkoa izanen da, zerbitzu horiek egiaztatzen ematen diren kalitate arauetan garaturiko baldintzak betez.

–Boluntariotza sozialaren sustapena: toki mailan parte hartzen ahal duten boluntarioen lana sustatzea, zerbitzua erabiltzen duten pertsonen sostengu sare informalearen barnean, herritarren arteko elkartzaren printzipioan oinarrituz.

### 3. artikulua. ELZ programaren ezaugarriak.

ELZ honelako zerbitzua da:

–Baliogintza, bere gain hartzen baitu autonomia pertsonala falta duten pertsona edo familia taldeen premia sorta zabala estaltzea.

–Normalizatzailea, ingurune baliabideak erabiltzen baititu premiak betetzeko.

–Etxekoa, erabiltzaileen etxean egiten baita oroz gain.

–Integrala, bizikidetzaren unitateen premiei osoki heltzen baitie.

–Prebentziozkoa, haren bidez ahalegina egiten baita eragozteko edo murrizteko gaitasun pertsonalen narriadura eta sostengu eta harreman sozialen galerak, bai eta beharrik gabeko instituzionalizazioak ere, salbu eta horrela bizi kalitate hobea bermatzen bada.

–Osagarria, oinarritzko beste laguntza batzuekin bateratu baitaiteke, helburuak betetzeko.

–Akuilatzailea eta pizgarria, erabiltzaileen beharrak betetzen laguntzen baitu haien gaitasunak indartzeko eta beren aldaketaren eragile eginez, eta familiaren parte-hartzea bultzatzen baitu.

–Teknikoa, esku-hartzearen oinarri diren jarduerak teknikoki planifikatzen baitira eta behar bezala gainbegiraturiko profesional kualifikatu batzuek eramaten baitituzte jardura horiek aurrera.

–Pertsonalizatua, erabiltzaile bakoitzak bere beharretara egokitutako programa eta jarraipena behar baititu, baliabide hoberenak erabiltzearekin batera.

–Laguntza hartzen duten pertsonen eta haien zaintzaileen lehentasuneko errespetuan oinarritua, profesionalen orientabideak aintzat harturik.

–Estandura-emailea, Burlatako biztanleriari dagokionez, langile/erabiltzaile estaldura-ratio bat bermatuko baitu, zerbitzua baldintza egokietan ematea segurtatuko duena, langileen lan eskubideak bermatzeaz gain.

### 4. artikulua. Helburuak.

Ettxeko Laguntza Programak honako helburu hauek ditu:

–Pertsonak beren ohiko ingurunean ahalik eta denbora gehienez eta ahalik eta bizi kalitate handienarekin atxikitzen laguntzea, alternatiba egoki baten bidez beharrik gabeko instituzionalizazioak prebenitu eta saihesturik, bai eta inguruneetik deserrotzea ere, horren ondorioz gertatu ohi denez.

–Pertsonaren eta familiaren trebetasun, gaitasun eta abilezien optimizazioa lortzea, autonomiarik handiena izateko bide emateko, ohitura osasungarriak bultzatuz, norberaren segurtasuna eta autoestimua handituz, erabiltzaileek beren kasa egin ditzaketan zereginak sustatuz.

–Ohiko bizikidetasun prestazio multzo bat eskaintzea, modu integratuean eguneroko bizitzako jardura guztiak egitea errazteko eta haietan sostengua emateko.

–Jarduketak koordinatzea esku hartzen duten profesionalen sarearekin, batez ere osasun eta gizarte zerbitzuetatik, baliabide egokiak erabiliz eta aplikatuz, esku-hartzea ahalik eta eraginkorra eta efizienteena izan dadin.

–Oreka pertsonala, familiara eta ingurunearena hobetzea, familia, auzo eta adiskidetasun loturak sendotuz, sostengu sare naturalen lankidetzaren bidez bultzatuz eta indartzuz, bereziki familiara, zaintzaileei behar bezalako sostengua emanik.

–Etxeko laguntza-zerbitzua ematea, nahiz eta horrek ez dakarren familiararen erantzukizunak hartzea ELZren erabiltzaileei dagokienez.

–Laguntza ematea autonomia pertsonal eta sozialari eragiten dioten unean uneko krisi pertsonal eta/edo familiarretan.

–Zerbitzuaren hartzaileen harreman sozialak eta jarduerak bultzatzea haien komunitate ingurunean, isolatze eta bakardade arazoak prebeniturik.

–Komunitateko boluntarioen bidezko sostengu soziala bultzatzea eta bideratzea, zerbitzuaren hartzaileei lagun egiteko indargarri gisa.

### 5. artikulua. ELZren erabiltzaileak/hartzaileak.

ELZren erabiltzaileak izaten ahaliko dira Burlatan erroldaturiko pertsona edo bizikidetzako familia-unitate guztiak, bizimodu autonomoa egiteko mugaturik badaude eta horren ondorioz beren kasa premia pertsonal eta sozialak bete ezinezko aurkitzen badira, ohiko bizikidetasun seguru ahal izateko laguntza hartu beharrean.

Erabiltzaile izateko, honako hauek izanen dute lehentasuna:

–Autonomia pertsonaleko zailtasunak dituzten adineko pertsonak.

–Autonomia pertsonalari modu larrian eragiten dion desgaitasun bat dutenak.

–Familia-unitateek, kide adingabeak edo beren burua zaintzeko zailtasuna duten kideak dituztelarik, etxean bertan behar bezalako zaintza eta arta ematen ahal ez badiete eguneroko bizitzako oinarritzko jardueretan, edo haien egoera sozioekonomiko, kultural edo sozialagatik komenigarria bada etxeko laguntza har dezaten, haien garapen normal eta orekatsua bermatze aldera.

Salbuespenez, Burlatan erroldatutako senideen etxean aldi baterako egonaldia egiten dutenean, laguntza ematen ahaliko zaie mendekotasuna duten pertsonari.

Premia-maila bera izanik, lehentasuna izanen dute kargen eskala progresiboaren arabera prezio publikoaren % 100 baino gutxiago ordaindu behar dutenek.

### 6. artikulua. ELZn parte hartzen duten profesionalak.

Honako hauek izanen dira etxeko laguntza-zerbitzuko oinarritzko lantaldea osatuko duten langileak:

–Gizarte-langilea: eskaera jasotzea dagokio eta bera arduratzen da, orobat, kasuaren azterketa eta balorazioa eta orientazioa egiteaz, komeni den esku-hartze programa diseinatzeaz, eta proiektua gainbegiratu eta haren jarraipena eta ebaluazioa egiteaz.

–Familia-langilea: arlo pertsonaleko zein etxeko lanak egiten ditu, bai eta ohiturak eta gaitasunak sortu eta mantentzeko sostengu-lanak ere, erabiltzailearen bizikidetasun; horrez gain, aldi behin baloratu eta jakinarazi egin behar du haren esku-hartze jarraikiarekin egoerak izaniko bilakaera.

Aipatu lanetatik kanpo geldituko dira osasun arlokoak baizik ez diren prestazio guztiak, espezializazioa behar badute eta osasun arloko baliabideen eskumenari badagokio. Zainketak baizik ez dira egiten.

–Administrariak: zerbitzuaren ondoriozko administrazio eta antolaketa lanak egiten dituzte.

Laguntzak hala behar duenean, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuko beste langile batzuek esku hartzen ahaliko dute, hala nola honako hauek:

–Hezitzailea: heziketa lanak egiteaz arduratzen da erabiltzaileekin, haren familiarekin eta ingurunearekin, bizikidetzako gunearen familia-autonomian laguntzeko ohitura eta abileziak eskuratzeko xedez.

–Psikologoa: sostengu psikosoziala behar duten egoeretan esku hartzen du, bai eta zaintzaileei sostengua eta orientabidea emateko jardueretan eta zerbitzuko langileen prestakuntza etengabearen ere.

Ordenantza hau aplikatuko zaie Udaleko ELZko profesionalari nahiz Udalak kontratatzen dituen enpresetako profesionalari.

### 7. artikulua. Zerbitzua erabiltzeko irizpideak: mendekotasuna baloratzeke tresnak.

Ettxeko laguntza-zerbitzua nork nola erabiltzen ahaliko duen baloratzean, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuek honako hauek hartuko ditu kontuan:

–Onuradun izanen diren autonomia funtzionalaren maila, eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak eta jardura instrumentalak egiteko.

–Sare naturalaren (bereziki familiarren), auzokideen eta adiskideen sostengua izateko aukera.

–Onuradungaien egoera sozial, ekonomiko eta familiarra.

Horretarako, egungo araudiari jarraikiz indarra duten balorazio eskalak erabiliko dira.

### 8. artikulua. Zerbitzuen zorroa.

8.1. Ettxeko laguntzaren barnean ondotik ematen diren jarduketak sartzen dira. Guztiak eman daitezke, edo baten bat bakarrik, zerbitzuaren ahalaren arabera:

Zerbitzua egunean 2 orduz emanen da gehienez etxe bakoitzean, salbu eta zerbitzuaren beharrek besterik eskatzen badute, eta lantaldeak horri buruzko balorazioa egin ondoren.

8.1.1. Sostengu eta laguntza pertsonaleko jarduketak. Hona hemen eguneroko oinarritzko zereginetan sostengu pertsonala emateko jarduketak:

a) Norberaren higieneak:

–Oinarritzko garbiketa: aurpegia, eskuak, genitalak, aho-higienea eta orratzea.

–Bizarra kentzea (makina elektrikoarekin).

–Ohean eri diren garbiketa.

–Bainua/dutxa.  
–Pixoihalak aldatzea.  
–Larruazala hidratatu eta haren egoera zaintzea.  
–Oinen eta eskuen higieena eta zaintza (garbitu eta idortzea, azazkalak limatu eta/edo moztea, azal gogorra leuntzea, hidratazioa). Hortik kanpo uzten da azazkalak moztea diabetikoei edo tratamendu antikoagulatzaileak hartzen dituztenei.  
–Ilea garbitu, idortu eta zaintzea.  
–Iraizkinak biltzea (pixontziak/gauntziak). Kanpo uzten dira profesional kualifikatu baten esku-hartzea behar duten jarduketak/zainketak.

b) Jantzia/oinetakoak:  
–Janzteia/eranztea.  
–Oinetakoak jantzia/eranztea.  
–Jantziak eta oinetakoak gainbegiratzeko.

c) Oinarritzko mugikortasuna:  
–Ohetik jaikitze edo/eta etzateko laguntza.  
–Tokiz aldatzea (ohea, jarlekuak).  
–Etxean mugitzen laguntzea.  
–Etiket kanpo mugitzen laguntzea.  
–Laguntza teknikoak aplikatzea.

d) Jarduketako zoziosanitarioak:  
–Gorputz-jarrerak aldatzeko laguntza, ezarritako protokolei jarraikiz.  
–Hainbat patologiarik egokitutako dieten kontrola eta jarraipena.  
–Medikuek agindutako botikak behar bezala hartzen diren gainbegiratzeko.  
–Errezetak eta botikak jasotzea.  
–Botikak prestatu eta ematea, botika injektagarriak izan ezik. Ez da orratzik duen gailurik erabiliko.  
–Pertsonaren osasunari lotutako alderdien behaketa egitea (dietak, inkontinentziak, eskarak, oroimen galera...), eta halakoen berri ematea lantalde profesionalari, behar denean.  
–Gaitasun fisikoak eta mugitzeko gaitasunak berreskuratu, mantendu eta hobetzeko jardueretan laguntzea, ezarritako protokoloari jarraikiz (mobilizazio pasiboak, kremak eta pomadak igurtzi lokalez ematea, material ortoprosesikoa jartzen laguntzea eta abar).  
–Gaitasun kognitiboak berreskuratu, mantendu eta hobetzeko jardueretan laguntzea, ezarritako protokoloari jarraikiz (oroimen ariketak, denboran eta espazioan orientatzeko ariketak eta abar).  
–Osasun arloko kontsultetara laguntzea.  
–Inkontinenziarako gailuen aplikazioa (gernu kolektoreak, zundako poltsak aldatzea).  
–Aposituak aldatzea, osasun arloko profesionalen esku-hartzea behar ez denean.  
–Lehen laguntzako teknikak aplikatzea larrialdietan.

8.1.2. Etxeko zereginetan sostengu emateko jarduketak. Hona hemen etxeko zereginetan sostengu emateko jarduketak:

a) Erabiltzailearen elikadurari lotuak, hala nola:  
–Janariak prestatzen laguntzea.  
–Otorduetan atontzen laguntzea (berotzea, mahaia jartzea, janariak banatzea).  
–Janari prestatua etxeetan banatzeko zerbitzua, erabiltzaileen nutrizio-beharrak bermatzeko.  
–Baxera eta/edo janaria prestatzean erabilitako tresnak bildu eta garbitzea.

b) Erosketari lotuak:  
–Erosteko ohiturei eta antolaketari jarraipena egitea.  
–Erosketa-zerrenda osatzen laguntzea.  
–Erosketak egitea.  
–Erosketak etxera eramatea.  
–Erosketak antolatzen laguntzea.  
ELZn erosketak egiteaz ari garenean, eguneroko bizimoduari lotutako oinarritzko produktuak eskuratzeko ari gara.

c) Erabiltzailearen oinetako eta arropa pertsonalak eta etxeko arropak zaintzeari lotuak, hala nola:  
–Arropa/oinetakoak garbitzen laguntzea.  
–Arropa hedatu eta biltzea.  
–Arropa lisatzea.  
–Arropa/oinetakoak antolatu eta hautatzea.  
–Armairuak txukuntzea.  
–Arropa pasaratu eta konpontzea (botoiak, urratuak), jostintzako ezagutza berezirik behar ez bada.  
–Kanpoko ikuztegi zerbitzua erabiliz gero (garbitu eta lisatzea), ohiko erabilerako arropa sartuko da jarduera honetan.

d) Etxebizitzako mantentze-lanei lotuak, hala nola:

1. Jarduera/zeregin arruntak:  
–Oheak egitea, erratza pasatzea, xurgagailua pasatzea, mopa pasatzea, hautsa kentzea, lurra lanbasaz garbitzea, kristalak garbitzea.  
–Etxetresna elektrikoak garbitzea: hozkailua, sukaldea eta mikrouhin-labea.  
–Sukaldea garbitzea.  
–Bainugela garbitzea.

2. Jarduera/zeregin bereziak:  
–Sabaiak eta paretak garbitzea.  
–Gortinak, lanparak garbitzea.  
–Etxetresna elektrikoak garbitzea (hozkailua, sukaldea eta mikrouhin-labea izan ezik).  
–Ateak, leihoak eta armairuak garbitzea.  
–Zikin-markak garbitzea (etengailuak, eskutokiak, telefonoa, eserleku-bizkarrak eta abar).

3. Etxeko konponketa errazak:  
Etxeko konponketa errazetan eskulan xumea behar duten jarduerak/zereginak sartzen dira, hau da, zenbait elementu ordeztu edo doitzeko etxea behar bezala mantentzeko; betiere, kontuan hartuko da langilearen laneko arriskuen prebentzioa.  
Ez dira sartzen beste lanbide batzuen berriazko ezagutza edo teknikari baten esku-hartzea behar dutenak.

4. Etxebizitzako ekipamendu eta azpiegituraren egoera orokorraren kontrola eta jarraipena egitea:  
–Begiratzeko ea egoera onean dauden eta ongi funtzionatzen duten etxebizitzako ekipamenduak eta instalazioek (gasa, argindarra, iturgintza, berokuntza, telefonoa); Udaleko teknikariek aztertzen ahaliko dituzte ELZko langileek eskatuz gero eta, betiere, zerbitzuko langileen osotasun fisikoa bermatu beharko da, ordenantza honen 11.5 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.  
–ELZren esku-hartze egokia baloratzea, hau da, zuzenean esku-hartzea ala erabiltzailearen, familiaren edo teknikari egokiaren esku uztea.

8.1.3. Laguntza psikosozialeko oinarritzko jarduketak. Laguntza psikosozialeko jarduketak dira laguntzako prozesu batean egiten direnak, eremu pertsonal, familiar eta/edo sozialean azaldutako egoerak gainditzeko; haietan, lagundutako pertsonak balioetsiak eta sare sozialeko kide senti daitezten sustatzen da.

a) Psikologiaren eta gizarte-heziketaren arloko jarduketak:  
Heziketa ikuspegi eta estrategiatik, oinarritzko trebetasun, jokabide eta abileziak eskuratu, berreskuratu, ikasi eta erabiltzera bideratutako jarduerak eta atzak dira, erabiltzailearen eta haren ingurunearen autonomia ahalik eta handiena izan dadin:  
–Jokabide eta egoera arriskutsuak identifikatzea eta haiek aldatzeko informazioa eta orientabidea ematea.  
–Laguntza teknikoak erabiltzeko orientabidea eta trebakuntza.  
–Etxeko antolaketa arloko orientabidea (gauzak eta elikagaiak antolatzea).  
–Bizikidetzako egokirako harremanak bultzatzeko orientabidea (trebetasun sozialak, asertibitateak).  
–Bizi ohitura osasungarriak erakustea (elikadura, norberaren higieena, etxeko higieena, ariketa fisikoa).  
–Autozaintza eta autonomia pertsonalerako ohiturak eta trebetasunak eskuratu eta garatzea. (Eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak eta jardura instrumentalak).  
–Prebentziorako trebetasunak eskuratu eta garatzea, eta etxeko jokabide eta egoera arriskutsuak aldatzea.  
–Laguntza emozionala bizitzako egoeretan (bakardadea/isolamendua, mendekotasuna/ahalmenak, osasuna edo autonomia galtzea, dolua).  
–Autoestimua bultzatu eta sustatzea (irudi pertsonala, onarpena, balioespena eta norberarekiko konfiantza).  
–Familiaren dinamikan azaltzen diren egoerak gainditzeko jarrera positiboak indartzea (errespetua, onarpena, entzutea).  
–Norberaren interesen arabera, denbora okupatzeko jarduerak bultzatzea, jokabide aktiboa sustatzeko (zaletasunak, hobbyak).

b) Familiari eta/edo zaintzaileei sostengu emateko jarduerak:  
Familiaren eta/edo zaintzaileen lana sostengatu eta bultzatzera bideratutako jardura eta atzak dira, erabiltzailea zaindu eta artatzeko.  
–Laguntza teknikoan, baliabideen eta sostengatzeko beste modu batzuen gainean informatu eta orientatzea.  
–Orientabidea, aholkua eta jarraipena erabiltzailea zaindu eta artatzeari lotutako gaien gainean.  
–Jarraibideak eta abileziak ematea zaintze eta artatze laneko hainbat egoerari aurre egiteko eta sortzen diren errealitate berriei egokitzeko laguntzeko.

–Autozaintzarako jarraibide, abilezia eta jarreretan lagundu eta orientatzea, bai eta estresaren eta gainkargaren prebentzioan ere.

–Zaintzaileei sostengu emozionala ematea.

–Jarrera positiboak bultzatzea, elkar ulertzeko, parte hartzeko eta komunikatzeko.

c) Sostengu soziokomunitarioko jarduketak:

Erabiltzailea bizitza sozialean eta harremanetan, bai eta komunitatearen baliabideen ezagutzan eta erabileran ere, parte hartzera bultzatzen duten jarduerak eta atazak. Zehazki, honako jarduera eta atazak hauek:

–Jarduera antolatuei eta baliabide komunitarioen erabilerari buruz informatu eta orientatzea.

–Gizarte, aisialdi edo denbora-pasako jardueretan parte hartzera bultzatzea.

–Gizarte, aisialdi edo denbora-pasako jardueretan parte hartzeko lagun egitea.

–Etxetik kanpo lagun egitea, gestio pertsonaletan laguntza emateko.

–Boluntarioen esku-hartzea erraztu eta bultzatzea, lagun egiteko zereginetarako.

–Komunitatea sensibilizatzea mendekotasuna duten pertsoneri buruz.

8.1.4. Burlatako herritarrei janari prestatuak etxera eramatea. Udal ELZren erabiltzaileentzako janari prestatuen zerbitzua izan da eguneroko bazkari eta afari zerbitzua ematea, bai eta zerbitzu hori erabiltzaileen etxeraino eramatea.

–Zerbitzuaren erabiltzaileei banatuko zaien menua gizarte zerbitzuek alde zuzenetik eskatutakoa izan da, kontuan harturik familia medikuak agindutako dieta mota, halakorik agindu badu.

8.1.5. Sostengu teknikoko jarduketak eta beste laguntza-baliabide batzuk. Sostengu teknikoko jarduketak eta beste laguntza-baliabide batzuk dira etxebizitza erabiltzailearen beharretara egokitzea helburu duten jarduketak, bai eta trantsizio bat egitea helburu dutenak ere, ohiko bizilekua aldatzea edo hortik ateratzea eragiten duten beste bizi egoera batzuk direla eta.

a) Sostengu teknikoko jarduketak etxebizitzan:

–Etxean zaintza hartu eta autonomia izatea ahalbidetzen eta sustatzen duten laguntza teknikoei buruzko balorazioa, informazioa eta orientabidea.

–Etxea egokitzeko beharrei buruzko eta arrisku zein oztopo arkitektonikoak kintzeari buruzko balorazioa, informazioa eta orientabidea.

–Etxea erabiltzailearen egoeraren arabera egokitu eta antolatzeko orientabidea eta laguntza.

b) Beste laguntza-baliabide batzuk:

–Etxean sostengu emateko beste baliabide osagarri batzuen gainean balorazioa, informazioa eta orientabidea ematea (materiala mailegatzea, larrialdiko telefona, eguneko zentroak).

–Balorazioa, informazioa eta orientabidea ematea beste baliabide alternatibo batzuen gainean, etxean bizitzen segitu ordez.

8.2. Zerbitzuen zorroa aplikatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. Zerbitzuen zorroa aplikatzeak zentzua du erabiltzailearekiko laguntza-harreman baten ingurumariaren barrenean, horixe baita haren xede nagusia. Alde horretatik, zorroko jarduerak ingurumari horretan sarturik daude eta, kasu bakoitzerako abiarazi den banakako esku-hartze planean oinarriturik, haien xedea izan daiteke sostengatzea, gainbegiratzea, lankidetzan aritzea, gauzatzea, hezte eta prestakuntza ematea.

2. ELZko lantaldeak zehazten dituen banakako esku-hartze planetan etxeko zereginak egitea erabakitzen denean, beti ulertzen da profesionalen lana ez dela bakar-bakarrik zeregin hori egitea; aldiz, lotura hertsia du laguntza harreman bat ezartzearekin, eta horrek desberdintasuna sortzen du merkatuan diren bestelako etxeko zerbitzuen aldean.

3. Zerbitzuen zorroa ELZn egin daitezkeen prestazio eta jardueren multzoa da, baina horrek ez du esan nahi kasu guztietan den-denak aplikatu behar direnik. Jarduerak banakako esku-hartze planean zehazturik eta jasorik geldituko dira.

4. Bestelako profesional kualifikatuak behar ez dituzten jarduerak eta zereginak egiten dira, eta ohiko erabilerakoak diren espazio edo lekuetan bakar-bakarrik, alegia, erabiltzailearen eguneroko bizitzeko oinarritzko jarduerak egiteko behar-beharrezkoak diren horietan.

5. Zerbitzuen zorroan aipatzen edo jasotzen ez diren jarduera eta zereginak salbuespenez egiten ahalko dira, baldintza hauetan oinarriturik:

–ELZko lantaldeak balorazio profesionala egitea.

–Oinarritzko premia bat estaltzea, estali ezean arrisku egoera edo okerragotzea eraginen balitz bizi baldintzetan.

–Premia hori estaltzeko beste aukera edo baliabiderik ez egotea.

–Aldi baterako egitea, eta aldi berean beste aukera batzuk bilatzea, ohiko zeregina bilaka ez dadin.

6. Zorroaren aplikazioa partez aldatzen edo eteten ahalko da, baldin eta erabiltzailearen nahiz profesionalaren segurtasun edo osasunari eragiten dieten arrisku egoerak gertatzen badira.

7. Zorroa modu egokian aplikatzeko, nahitaezkoa izan da zerbitzu espezializatuen arteko koordinazioa, batez ere osasun arlokoena, hala behar denean eta erabiltzailearen baimenarekin.

8. Erantzukizun eta lanen berdintasunezko banaketa sustatuko dute zerbitzuek, generoko diskriminaziorik gabe, erabiltzaileei eta haien familia eta gizarte inguruneari dagokienez.

9. artikulua. Prezio publikoa. Tarifen sistema.

Hauek dira finantzaketari aplikatu beharreko irizpide eta printzipioak:

1. Zerbitzu unitatearen definizioa: zerbitzu unitatea neurtzen da ordenantzan eskainitako edozein zerbitzu emateko etxean benetan aritzen den denboraren arabera, gehienez ere bi laguntza ordu egunean, zerbitzu beharrek besterik eskatzen dutenean izan ezik, betiere lantalde profesionalak horri buruzko balorazioa eginik.

2. Familia unitatearen definizioa: prezio publikoa kalkulatzeko erabiliko da PFEZan definitzen den familia unitatea.

–Legez bereizirik ez dauden ezkontideek eta adingabeko seme-alabek osatua (gurasoen baimenarekin, haiekin bizi ez direnak salbu); unitate horretan sartzen dira, halaber, judizialki ezgaituta eta guraso-ahal luzatu edo birgaituaren mende dauden adin nagusiko seme-alabak.

–Berariazko legeen arabera bikote egonkor bateko kideek eta, halakorik bada, adingabeko seme-alabek osatua (gurasoen baimenez haiekin bizi ez direnak salbu); unitate horretan sartzen dira, halaber, judizialki ezgaituta eta guraso-ahal luzatu edo birgaituaren mende dauden adin nagusiko seme-alabak.

Legezko banantzearen kasuetan edo, ezkontza-loturarik edo bikote egonkorrik ez dagoenean, aitak edo amak eta batarekin edo bestearekin bizi diren seme-alaba guztiak osatzen dutena, aurreko apartatuan aipatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

3. Ahalmen ekonomikoa zehaztea: errenta eta gastu kengarriak.

–Errenta: PFEZaren etekin garbiak eta pentsio edo prestazio salbuetiak.

–Gastu kengarriak: etxebizitzari lotutako gastuen kontzeptuan (alokairuan edo erositakoa), indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren % 35, eta mendekotasunaren ondoriozko laguntzaren diru-sarrerak (eguneko zentroak, garraioa, etxeko laguntzarako diru-laguntza eta beste batzuk).

–Hileko per capita errenta garbia: aurreko kontzeptuak batu eta familia unitatea osatzen duten kideen kopuruaz eta 12 hilabetez zatituta sortzen dena.

Erabiltzailea PFEZaren aitortpena egitera behartua ez dagoenean, aurreko ekitaldian izandako diru-sarreraren arabera zehaztuko da ahalmen ekonomikoa.

4. Kostuaren oinarritzko unitatea zehaztea:

Zerbitzuaren kostu guztiak egotzi eta benetan emandako laguntzaren guztizko kostuaren balioa kalkulatzeko, ordu bakoitzeko, metodo hau erabiliko da:

–Urtero kostu zentro bat zehaztuko da, eta hari egotziko zaizkio zerbitzuaren zuzeneko eta zeharkako kostu guztiak: lanaldi osoko familia-langile baten kostua eta gizarte-langilearen eta administrari laguntzailearen kostuaren % 15, horiek biak programaren kudeaketan zuzenean parte hartzen duten profesionalak baitira.

Guztirako kostua lanaldi osoko familia-langile batek etxeko laguntzan egiten ahal dituen orduen kopuruaz (lanaldi horren % 80) zatituta ateratzen da laguntza orduaren kostua.

(Udal ELZren laguntza jasotzen duten mendeko pertsonengatik ematen duen dirulaguntzan Nafarroako Gobernuak ezarriko aplikazio moduluen arabera).

5. Tarifaren oinarritzko unitatea:

–Etxean zerbitzua ematen benetan eginiko ordua da tarifaren oinarritzko unitatea.

–Prezio publikoa edo tarifa laguntza orduaren % 50 izan da, eta prezio horren zenbatekoa urtero ezarriko du Nafarroako Mendekotasun Agentziak.

–Tasa hiler eskatuko da (hilaren 1etik 15era bitarte).

6. Prezio publikoa kargatzeko eskala progresiboa:

Karga-eskala familia unitatearen per capita errenta garbiaren arabera izan da, eta errenta horrek urteko lanbide arteko gutxieneko soldaterekiko duen proportzioan oinarrituko da, 3. eranskinean zehazten denari jarraikiz.

10. artikulua. Esku-hartze teknikoko protokoloa.

Esku-hartze teknikoko protokoloak hurren adierazten diren urratsak jasotzen ditu, eta halakoen edukia 1. eranskinean azaltzen da:

–Harrera eta orientazio soziala.

–Kasuaren azterketa.

–Egoeraren diagnostikoa.  
 –Banakako laguntzarako proposamena. Esku-hartzearen diseinua.  
 –Esku-hartzearen hasiera.  
 –Jarraipena eta ebaluazio jarraikia.  
 11. artikulua. Kudeatzeko arauak: etxeko laguntza-zerbitzua emateko administrazio prozedura.

#### 11.1. Prozeduraren hasiera.

ELZ emateko prozedura ofizioz edo interesdun baten eskariz abiatzen ahalko da:

–Ofizioz: prozedura ofizioz abiatuko da organo eskudunak hala erabakirik, dela organoaren beraren ekimenez, dela goiko agintarien agindu baten ondorioz, beste organo batzuek eskaera arrazoitua eginik.

Ofizioz abiatutako prozeduratan epea kontatzeko, hasiera-eguna izanen da ofiziozko prozedura abiarazten duen ebazpenarena.

Beti ere, prozedurak bat eginen du azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 68.etik 72.era bitarteko artikuluetan ezarritakoarekin (Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legea).

–Alderdi baten eskariz: alderdi batek eskaturik abiatuz gero, eskabideekin batera agiri honen 2. eranskinean aipatu dokumentazio administratiboa aurkeztu beharko da gutxienez, eta eskabidea behar bezala bete.

Aipatu dokumentazioa gorabehera, espedientea izapidetzen den bitartean, egokitzat jotzen diren agiri osagarriak eskatzen ahalko dira aurkeztutako eskabidearen inguruan.

Eskabideak zerbitzuaren titularra den entitatearen Erregistro Orokorean aurkeztuko dira, horrek galarazi gabe Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 38. artikuluan aurreikusitakoa; eskabidea aipatu erregistroan sartzen denetik kontatuko da prozedura izapidetzeko epea.

#### 11.2. Izapidetzea.

–Interesdunari errekerimendua eginen zaio eskabideak ez baditu biltzen eskatzen diren datu eta agiri guztiak, hamar eguneko epean ekar diotzen falta direnak edo aginduzko agiriekin batera ekarri behar direnak, eta ohartaraziko zaio, hala egin ezean, eskariari uko egintzat joko dela eta, izapide gehiagorik gabe, artxibatu eginen dela.

–Udal ELZren ardura duten teknikariek, aurkeztutako dokumentazioa ikusirik, proposamen-txostena prestatuko dute, interesa duen bizikidetzaren unitatearen premia egoeraren berri emateko eta eskatutako prestazioaren edukia, maiztasuna eta egokitasuna zehazteko.

–Horrez gain, ikustaldia eginen da bizilekuan bertan, eta haren bidez egiaztatuko da ea betetzen diren Burlatako Gizarte Zerbitzuak higie, ergonomia, osasungarritasun eta segurtasun baldintzen inguruan ezarritako irizpideak, Burlatako Udaleko laneko arriskuen prebentziarako zerbitzuarekin koordinaturik. Ordenantza honen IV. eranskinean jasotzen dira irizpideok.

Bizilekuan aldaketarik egin behar izanez gero, edo bizilekuan ez dagoen laguntza teknikoren bat erabili behar bada, ardura duten teknikariek informazioa, orientabidea eta laguntza emanen dizkiete erabiltzaileei eta/edo haien familiei neurri horiek eskuratzeko, baliabide sozialen bidez eta/edo entitate laguntzaileekin lankidetzan, erabiltzaileek ahalik eta ongizaterik handiena izateko eta zerbitzua ahalik eta kalitaterrik handienarekin emateko; bidezko bada, eskubidez dagozkien dirulaguntzak izapidetuko dira.

Inola ere ez da inor geldituko etxeko laguntza-zerbitzua jasotzeko IV. eranskinean ezarritako irizpideak ez betetzeagatik. Zerbitzua ematen segituko da egokitzeko behar den denbora guztian.

Etxeko laguntza-zerbitzua etenen da, bakarrik, erabiltzaileek edo familiak, egokitzeko aukera izanik, egokitzeari uko egiten diotenean. Izapidetzea etenik geratuko da, harik eta gabezia guztiak konpondu arte. Egokitzeko behar diren gestio guztietan, programaren ardura duten teknikariak informatzen, lagun egiten eta lankidetzan arituko dira.

–Proposamena dagokion organoari igorriko zaio, onets edo ezets dezan. Fase honetan sortuko da ELZren eskaria ebazteko agiri-proposamena.

#### 11.3. Ebazpena.

–Alkatetzaren ebazpen baten bidez erabakiko da laguntza ematea ala ez, Ordenantza honek indarra duen bitartean gizarte zerbitzuen arloan eskuordetzerik gertatu ezean; hala gertatuz gero, gizarte zerbitzuen arloko eskumenak eskuordetzerik dituen organoaren ebazpenaren bidez erabakiko da.

–Ebazpena aldekoa edo kontrakoa izan daiteke. Kontrakoa izanez gero, espedientea artxibatuz burutuko da izapidea; aldez, ebazpena aldekoa bada, zerbitzuaren altaren edo hasieraren eguna erabakiko da, baldin eta ordurik badago baliagarri laguntza emateko. Ordurik ez dagoenean baliagarri, kasua itxarote zerrendara pasatuko da.

Eskabidea Udalaren erregistroetarik batean sartu ondoko bi hilabetean eman beharko da ebazpena, beranduenez. Eskabideak zuzentzeko errekerimendua egiten bada, epea eten eginen da, jakinarazten denetik

hasi eta eskatutakoa betetzen den arte edo, bestela, ematen den epea iragan arte.

–Ematen den ebazpena gehienez ere hamar eguneko epean jakinaraziko zaio interesdunari; bertan, zerbitzua baietsi ala ezetsi zaion jasoko da, eta ea itxarote-zerrendan sartu duten, harik eta zerbitzua ematea posible den arte, eta ebazpenaren kontra bidezko diren errekursoen berri ematen da.

–Ebazpenak alderdi hauek aipatuko ditu, besteak beste:

1. Zerbitzua baietsi ala ezetsi den.
2. Zerbitzua zein baldintzatan ematen den, honako hauek gutxienez aditzera emanda:

–Banakako laguntza programa.

–Egin beharreko lanak/jarduketak.

–Laguntzaren iraupena.

–Laguntzaren ordutegia.

–Laguntza ematen den asteko egunak.

–Zerbitzuaren prezio publikoa, onuradunak ordaindu beharrekoa.

3. Onuradunarentzat ezarritako beste betebeharrak edo baldintza batzuk.

- a) Erabiltzaileek edo haien bizikidetzaren unitateko kideek gaixotasun mental diagnostikatu bat badute, ezinbestekoa izanen da Osasun Mentaleko Zentroaren tratamendua betetzea eta haren kontrola izatea.

- b) Burlatako Udalak behar adinako partida bat gaituko du, Zerbitzuko langileek izan dezaten, banakako babeserako, lokalizazio edo jarraipeneko gailu bat, Udaltzaingoari konektatua.

4. Ebazpenaren aurka aurkez daitezkeen administrazio errekursoak.

Interesdunak eskaturik abiatutako prozeduratan, berariazko ebazpenik ez izateko ondorio positiboak sorraraziko ditu eta, beraz, baietsizat hartzen ahalko da.

Aurreko puntuak aipatzen duen ebazpenaz gain, prozedurari amaiera emanen dio atzera egiteak, uko egiteak eta espedientea iraungitza deklaratzeak, bai eta gerora sortutako arrazoiengatik prozedurak segitzeko ezintasun materiala gertatzeak ere.

#### 11.4. Jakinarazpena.

Zerbitzua baietsita, onuradunei edo haien legezko ordezkariak jakinaraziko zaie. Jakinarazpen hori zerbitzuan alta emateko aginduaren pareko izanen da; bertan zehaztuko da zer laguntza mota ematen den, zenbat ordutegia eta zer tarifarekin. Era berean, Oinarriko Gizarte Zerbitzuari eta dagokion profesionalari jakinaraziko zaie.

#### 11.5. Azkentzea edo etetea.

- a) Azkentzea. Honako egoera hauengatik gertatuko da:

1. Interesdunek hala nahi dutelako edo uko egiten diotelako.
2. Zerbitzua erabiltzeagatik horretarako behar diren baldintzak bete gabe, edo baldintzak betetzeari uzteagatik.

3. Ordenantza honen 12.2. artikuluan ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik.

Gaixotasun mentala duten erabiltzaileen kasuan, tratamendua eteteak edo uzteak baja ekarriko du ELZren laguntzan.

4. Tratu desegokiagatik, eraso fisiko edo hitzeko erasoengatik eta sexu jazarpenagatik; halakotzat joko da iraingarria den eta lan esparruan jazarritako pertsonak nahi ez duen jokabide oro.

5. Bizilekua beste udalerriri batera aldatzeagatik, zahar egoitza batean sartzeagatik edo heriotzagatik.

6. Gerora sortutako arrazoiak direla eta, zerbitzua ematen segitzeko ezintasun materiala gertatzeagatik.

7. Egoera hobetzeagatik edo ELZren esku-hartzea ekarri zuten arrazoiak gainditzeagatik.

ELZn baja emateko, Oinarriko Gizarte Zerbitzuko gizarte-langileak agiri bat sinatu beharko du; agiri horretan, erabiltzailearen datuak eta baja emateko arrazoiak jasoko dira, bai eta zerbitzua emateari utziko zaion eguna ere.

Behar den organoak zerbitzuan baja emateko ebazpena emanen du, arrazoiak eta ebazpenak ondorioak izanen dituen eguna adierazirik.

Baja emateko bigarren, hirugarren eta laugarren kasuetan, ebazpena eman aurretik entzunaldia emanen zaio interesdunari.

- b) Etetea. Zerbitzua aldi baterako emateari uztea izanen da ondorioa.

–Gehienez ere 3 hilabete iraunen du.

–Etxeko laguntza-zerbitzua aldi baterako etenen da, bakarrik, bizilekua egokitzeak aukera izanik, prebentzio arloan ezarritako eta Ordenantza honen IV. eranskinean jasotako neurrien arabera, egokitzeari uko egiten diotenean.

Izapidetzea etenik geratuko da, harik eta gabezia guztiak konpondu arte. Egokitzeko behar diren gestio guztietan, programaren ardura duten teknikariak informatzen, orientatzen, lagun egiten eta lankidetzan arituko dira.

